

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2021eko abenduaren 4tik 10erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/09

- Ebazpena, 2021eko azaroaren 25ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den arte grafikoen, paperaren eta kartoiaren manipulazioen, argitaletxeen eta honen industria laguntzaileen estatuko 2021-2022rako hitzarmen kolektiboa. [20360 xedapena - 61 or.](#)
- Ebazpena, 2021eko azaroaren 25ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren haurren laguntza eta hezkuntza zentroetako XII. hitzarmen kolektiboaren ordainsarien taulak. [20361 xedapena - 5 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/09

- **Lan eta Enplegu Saila.** - Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Eraikuntza sektoreko hitzarmen kolektiboaren 2022ko laneko egutegia erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000715011981). [III-253 xedapena - 2 or.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/04

- Gizarte Segurantza. - **PCM/1353/2021 Agindua, abenduaren 2koa, zeinaren bidez garatzen diren 2021eko ekitaldirako Gizarte Segurantzaren kotizaziorako, langabeziarako, jarduera eteteagatiko babeserako, Soldatak Bermatzeko Funtserako eta lanbide heziketarako lege-arauak.** [20075 xedapena - 34 or.](#)
- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. - Dopina.** - Ebazpena, 2021eko azaroaren 25ekoa, Kirolaren Kontseilu Gorenaren Presidentetzarena, zeinaren bidez onesten den kirolean debekatutako substantzien eta metodoen zerrenda. [20076 xedapena - 14 or.](#)

2021/12/07

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. - Enplegua.** - 1069/2021 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, zeinaren bidez onesten den Enplegurako Laguntza Aktiborako Espainiako 2021-2024 Estrategia. [20185 xedapena - 98 or.](#)

•

2021/12/08

- **BARNE MINISTERIOA. – Mugak.** - INT/1372/2021 Agindua, abenduaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. [20255 xedapena - 2 or.](#)
- Prebentzioa eta laneko arriskuak. - **1076/2021 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen den langileek babes indibidualerako ekipamenduak erabiltzeari lotutako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenei buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretua.** [20261 xedapena - 21 or.](#)

2021/12/09

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. - Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera.** - ISM/1375/2021 Agindua, abenduaren 3koa, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Bitartekari Sozialen Erregistroa garatzen duena. [19369 xedapena - 1 or.](#)

2021/12/10

- **OSASUN MINISTERIOA. – Osasun neurriak.** - SND/1376/2021 Agindua, abenduaren 9koa, zeinaren bidez aldatu eta luzatu egiten den uztailaren 23ko SND/1309/2021 Agindua. Agindu hori COVID-19ak eragindako osasun krisiak irauten duen bitartean arrisku handiko herrialdeetatik Espainiara datozen pertsonak bete beharreko berrogeialdi-baldintzei buruzkoa da. [20372 xedapena - 3 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/12/04

- **XEDAPEN OROKORRAK. - OSASUN SAILA.** - AGINDUA, 2021eko azaroaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitalaren (QR) derrigortasuna ezartzen duena, 2021eko urriaren 6ko Aginduan ezarritako neurrien osagarri gisa. Lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa da agindu hori. [6123 xedapena - 1 or.](#)

2021/12/07

- **XEDAPEN OROKORRAK. - OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA.** - ERABAKIA, 2021eko urriaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, antolakunde nagusiaren egitura aldatzen duena. [6124 xedapena - 3 or.](#)

2021/12/10

- LEHENDAKARITZA. - **9/2021 LEGEA**, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/12/10

- **Batzar Nagusiak. - FORU ARAUAK.** - 28/2021 Foru Araua, azaroaren 24koa, honako hau berrestekoa: Ceutako Hiri Autonomoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien bidez, adingabeak babesteko erakunde publikoak direnez gero) arteko jarduketa protokolo orokorra, bakarrik dauden adingabe migratzaileak babesteko eta lurralde artean lekualdatzeko jarduketak koordinatu ahal izateko. 3942 xedapena - 14 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/10

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 150/2021 FORU DEKRETUA, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira 2022ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak. I-990 xedapena - 4 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/12/07

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 5/2021 Foru Araua, abenduaren 3koa, Gipuzkoako A-15 eta N-1 errepideetan salgaien garraioan aritzen diren ibilgailu astunek errepidea erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanona ezartzen duena. 7835 xedapena - 9 or.

2021/12/10

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** - Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 7/2021 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 16koa, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzekoa. 7841 xedapena - 1 or.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

•••••

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO